

Kaixo amatxo,

Ez dakit ongi nondik hasi, egoera latz honetan pentsatze hutsak eztarria estutu eta korapilatzen baitit. Gaurkoan, begiak atsekabe, amorru nahiz maitasunez bustirik idazten dizut. Bizitza galtzen edota sufritzen ari diren pertsona horiekiko sentitzen dudana atsekabeak eraginiko tantak ditudala masailetan zehar. Aita eta zu besarkatu eta zuen irrifarra ikusi ezinako sortzen didan amorruaz gorrituta masailak. Baina beti ere, egoera samurragoa nahiz ederragoa eginarazten didazuen pertsonenganako sentitzen dudana maitasunak eragindako begien disdiraz idazten dizut.

Egunak luze egiten dira batzuetan eta burutik igarotzen zaidan pentsamendu bakarra zuekin egon ahal izatea da. Gaua heltzen denean atsekabeak ez dit begirik batzen uzten, igandero lez etxeko bero goxoan egiten genituen erroskillak jateko behar ase ezina sartzen baizait. Zuen alboan. Erroskilla bat eskuan, mila istorio zure ezpainetan, aitaren algarak edota txisteak sukaldean eta zuenganako mirespena dir-dir nire begietan.

Egun euritsuetan bakarrik egoteak tristuraz amiltzen banau ere, pixkanaka nire burua hobeto ezagutzen ari naizela iruditzen zait, argiago ikusten baitut bizitza honetan benetan garrantzitsua eta ezinbestekoa denaren eta ez denaren ezberdintasuna. Egun aldapatsu horietan, txikitan gosaltzerako garaian jartzen zenigun abestia jarri eta azken eguna balitz bezala dantzatzen dut. Nonbait bere fruituak ematen ditu, abesti eder hori entzuteak berehalako dopamina txute moduko bat sentiarazten baitit. Egun hauetan beraz oroitzapenetatik bizi naiz.

Hala ere, dramak alde batera utzita, esan beharra dut dena ez dela kolore beltzekoa, berrogehialdia hasi zenetik honaino, nire sukaldatze gaitsauna hutsaren hurrengoa izatetik nahiko gustagarria izatera igaro baita. Ez dute zuk sukaldatu ohi dituzun plater goxoen antza handirik, baina pixkanaka, pazientzia eta maitasunez, zapore goxo horretara gerturatzen ari naiz.

Uste baino lehen etxe atarian izango nauzue, maitasun guztiz eginiko erroskilla mordo bat eskuetan dudala. Zuen besarkada eta muxuekin amesten jarraituko dut bitarte honetan. Zaindu zaitetzte, pa erraldoi bat biontzat. Maite zaituztet.

Kaia

Nahia Esnaola Barriola

19 urte  
Berastegi